



Haragiaren gauak eta egunak

Gorka Azkarate

Ohearen goxoa goizeko seiak baino lehen utzi beharra ohiko bilakatu den arren, nekez ohitu liteke bat ordu (desordu?) horietan lo-gureari aurre egiten; egunerokoak dira nagikeria, zapuzalditxoa eta loaldia alperriko bost minutuz luzatzeko ahalegina. Ezin denean, ezin da. Eta lantokira eramango nauen trenara hartu aurretik egin beharrekoen zerrenda hain denean luzea, eta hain direnean ezinbestekoak, zeregintxo infinitesimal horiek guztiak, hobe garaiz ibiltzea eta galbidera baino, trenara galtzera, alegia, eramanez ezin nazaketen nagikeria jolasetan denborarik ez galtzea.

Urteak dira, eguneko bi ordu trenetan igarotzen ditudala, eta urteak, bi ordu horiei ahalik etekinik handiena ateratzen saiatzen naizela. Trenaz bidaiatu beharrak, nire irakurtzeko ohiturak aldatu zituen gauetik goizera, eta aurretik eguneko beste une batzuetan eta bestelako tokietan izaten banuen irakurtzeko parada, ordutik aurrera trenara bilakatu zen nire irakurketa txoko. Onerako eta txarrerako. Badira egunak, zeintzuetan, bezperako loaldi kaxkarrak edo urriak eraginda, loak hartzen nauen trenaren triki-traka etengabearen menpera. Ez da sarritan gertatzen den fenomeno, ordea, are gutxiago Joan Mari Iri-gioen handiaren "Haragiaren gauak eta egunak"

Trena keinu txikiz beteriko kutxa da

maisulana irakurtzen igaro ditudan azken asteotan. Treneratu orduko lan izugarri honen irakurketan ostera murgiltzeko aukera izango nuela gogoratzeak, irrifarre eta barreneko poz txiki bilakarazi ez zituen bada, goizeko seietan ohetik altxatzean ohiko ziren nagikeria eta zapuzaldiak... Etxetik geltokirako bidea, garai batean oinez egiten nuen, korrika egitera pasa nintzen, modu honetan trenara lehenago helduko nintzela sinestaraziz, neure buruari... Erabateko adikzioak eragindako antsietatea, agian? Auskalo...

Bizitzak trenean egunero bidaiatzeko aukera eman zidanetik, jendearen (ezagutzen ez dudana jendearen, gehienetan) ohiturak, joerak, keinuak eta mugimenduak aztertzeko parada izan dut. Trena, izan ere, keinu txikiz beteriko kutxa ibiltari baten modukoa da, ohitura bereziak, joera ezberdinak, eta norbanakoen berezko mugimenduak, norberarentzat hautemangaitzak, biltzen dituen kutxa ibiltari baten modukoa, hain juxtu. Norbere izakerari loturiko keinuak, ohiturak eta joerak, usu. Eta dibertigarria gertatu ohi zait, begi zolia lagun, treneko bidaideak karakterizatzeko jolasean aritzea, alboko gaztea, haragoko emakumea edo azkeneko geltokian jaitsi den agureak eguna zertan emango duten, zer pentsatzen ari diren edo beren zaletasunak



zein diren asmatzen aritzea. Asmakizunetik asko eta egiatik gutxi badute ere, noski, nire irudikapenek. Irigoienen lanera itzuliz, eta parekotasuna egite hutsak zentzu handiegirik ez duen arren, miresgarria begitantzen zait trilogiako lehen bi nobeletan parte hartzen duten pertsonaien, orbetarren zein besteen, karakterizazioa, zeinen muturrera eramaten dituen Irigoienek deskribapenok, eta zenbaterainoko pisua hartzen duten nobelan pertsonaia bakoitzaren pentsamenduek eta unean uneko sentipenek; hots, pertsonaia bakoitza zernolako fintasunez zizelkatzen duen egileak, xehetasun txikienari garrantzia emanaz, harik eta osotasun biribila lortu arte. Lekutan, trenean egiten dudan karakterizazio ariketa...

"Haragiaren gauak eta egunak", maisuki deskribatutako pertsonaien metaketa hutsa baino gehiago da, askoz gehiago. Trenean posible da, jarlekuaren kokapenaren arabera, atzera begira bidaiatzea; antzerako zerbaite izan liteke, ostera pa-

rekotasun kaxkarra hartuz makulu, "Haragiaren gauak eta egunak" irakurtzea: iraganera bidaiia, atzerakako bidaiia. Gure herriaren historiaren zati bat zirriborrotzen baitu, Irigoienek, orbetarren garpena kontatzearekin batera.

"Bestea da mundua" zen orbetarren trilogiako lehenengo liburua izenburua, eta, egia iri, irakurlea beste mundu batera garraiatzeko ahalmena du aipatu liburua. Arnas luzeko lana zen lehen hura, eta bigarrena are arnas luzeagokoa, bere ia mila orrialdeak, horren lekuko. Lanen aparteko luzerak luzera, ordea, nola lehenengoan hala bigarren honetan, irakurlea aurreneko orrialdetik istorioari erabat kateatzeko dohai ez-ohikoa du Irigoien trilogiak, eta lehenengo bi liburua irakurri ditugunok, irrikaz itxaroten dugu, dagoeneko, hirugarren alea. Bidaiia erakargarriaren hirugarren kapitulu hori heldu bitartean, berriz, eguneroko tren bidaiia beti-berdinarekin konformatu behar...

GOZATU LITERATURA www.elkargitaletxea.com/gozatuliteratura **elkar**

Haragiaren gauak eta egunak
JOAN MARI IRIGOIEN

Musika airean
KARMELE JAO

Londres kartertzkoa da
UNAI ELORRIAGA